

ZENBAT BURU
Lourdes Zubiaurre

ERREPORTAJEA
Unceta enpresak
125 urte bete ditu

1999ko urriaren 22a
VII urtea - 295. zkia

R O

REN

E L G O I B R K O T E K R



GEHIGARRIA
Zaharrak berri

UDALETXETIK
Udal plenoak
zergen igoera
onartu du

KULTUR
ELKARRIZKETA
Antxon Alvarez,
Kokoeko
presidentea



91111011



JoKin Agine7cocla

T 22mbio Etxebarria

TIsa Sariaren iraVE

"Langile onari zor zaio saria" (Esaera zaharra)



Go atu udaz
urte osoan
4ze ar

NaturGas

gril 902 123 456
NaturGas, Euskadiko gasa

Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE



LOURDES ZUBIARRE

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokioneau, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Baso naturala

Intxaurren, gereziar, haritzak, pagoak, lizarrak, gaztainondoak eta antzerakoak, egunez egun gure inguruan gero eta gutxiago ikus ditzakegun arbola noble eta preziatuak. Merkatuaren neurrigabeko beharren ondorioz, baso tropikala jasaten ari den desagertze prozesu bortitzari aurre egin diezaioketen bakarrak dira goian aipatu ditudan arbolak. Izan ere, herrialde garatuetan egurra da lehengai nagusienetakoa. Basoak errentagarriak dira, baina beti ere bi baldintza betetzen badira: bat, arbolaren hazaldia kontutan hartzen ez bada, eta bi, ez badira kontserbaziorako koste handiak ezartzen. Frantziako Grenoble herrian, esate baterako, arbolaren hazaldia azkarragoa izatea lortu dute oinarriko teknika agronomikoak aplikatuz. Adibidez, intxaurren batek 60 zentimetroko diametroa hartzea lor

dezake 24 urtean, beti ere lurraldea eta klima egokiak baldin badira. Estatu espainiarrean ere bada ekimen pribaturik hain zabaldua dauden hazaldi azkarreko arbolak baztertu (eukaliptoak adibidez)

eta lurralde zabalak basoz berritzeko asmoa dutenak. Hau lortzeko, ekimen honek merkatuko arbola garestienak hartuko ditu eta hazaldi azkarreko teknikak ezarriko zaizkie. Arbola bakoitza tantaka ureztatzen da eta kimuak kentzen zaizkio soro teknikak erabiliz. Nekazari hauentzat intxaurren ez dira intxaurren ematen dituzten arbolak, egurrari esker etekin ederrak ematen dituzten arbolak baizik.

Tamalez, honelako joerak eta ohiturak jarritzen dituztenek desertizazio prozesua areagotzen laguntzen dute. Zuhaitzak dira hezetazun iturri nagusiak eta hauen hezkunde naturala errespetatzen ez bada lurrak igarri egiten du.

**"Batuzentiat
intmulgrondoak ez
dira intxaurren
ematen duten arbolak,
egurrari esker etekin
ederrak ematen
dutenak baizik".**

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparaniza, 2
20870 ELGOIBAR

ri 943 74 41 12

Plublizitatea:

1r 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jaIgi.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Gid

MAKETATZAILEA Bea Ansola

AONINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuosle.

KOLABOBATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, IdaaArozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

imanot Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion lotota, Ongarn Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Pell Uriguen,

tban Urizar, Amaia Urzetai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AzALEXo ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARBURADBNA IMBROILarrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1 .038/92

ISSN 1139-11355

Elgoibarko Udalak, Ett.sko

Jaasrlaritzako Kultura

Sailak eta Foru

Aldundiak diruz

lagundutako

aldizkaria.



11; pagizarte-ekintra
obra social

1DANOBAT

SS GOITI
GRUPO DANOBAT

Okeppak zuzenduz

Pasa den astean Helduen Heziketaren (EPA) inguruan hitz egin genizuen erreportaje. Klaseak arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara izaten direla idatzi genuen, baina EPAko arduradunek zuzenketa bat egitea nahi dutela eskatu digute. Izan ere, klaseak arratsaldeko 16:30etik 20:30ak arte izaten dira egunero. Bide batez, izena ematea nahi duten herritarrek animatu nahi dituzte.

BARREN astekaria

Inguare komerlak

Udalak dirurik ez daukala dio... kontu hau ezaguna da herritarren artean. Hala ere, entzundako gauzak entzunda, zalantzan jartzen dugu esaldi zahar hori. Ulertzen dugu guztiok Ianaren truke zerbait jasotzeko eskubidea dugula (legeak dioenez), baina bere neurrian izan beharko litzateke, ezta? Badago bai, Mendaron zeregin handia, adibide bezala ondorengo hauek:

-Prebentzioa, euskara, animadore sozio-kulturala, teknikari profesionalak...

-Garagartzaren alde zerbait premiazkoa egitea. Zergatik ez etxe zaharrak berziklatzeko plan bat burutu? Aldi berean, gure alde zahar eta historiaren gune denez, eta gazte askoren egoera ikusirik, etxe horiek alokairu edo/eta salneurri baxuetan jar daitezke.

-Monjen konbentua erosi eta erreabilitazio politikan inbertitu. Alberge bat ere egin daitezke, eta horrekin batera eskualdeko turismoa bultzatu. Ez al da hau eskualdeek, Gobernuak eta Diputazioak duten helburuetariko bat?

-Gazte lokalak, tailerrak, ekologia eta ekosistemak bultzatzeko plangintzak, polikiroldegia, talde Ianen suspertuntza etab.

Eginheharrekoak baditugu etorkizunean. Honetarako, NAHIA EZ DA NAHIKOA herriaren alde egiteko, NORBERARENGAN GUTXIAGO pentsatu behar da, ez ala?

Mendaroko Plataforma Aktiboa

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarreza: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**,



KEXAK

• Erretxindi auzoko bizilagun batzuek Udalaren alde tik jasotzen duten tratua zexu dira eta Erretxindi Elgoihar ote den galdetzen diote beraien buruei: "hori da auzotar askok gure buruari galdetzen dioguna. **Badirui autopistatik gorakoa beste mundu bat dela, batez ere Udalak jartzen digun arretari erreparatzen badiogu.** Ez dakit gure auzoko umeek zergatik jo behar duten hiri erdiraino, jolas piska bat egiteko. Jakinda, gainera, hemen goian lekua soberan dagoela (hortaz ezin gara kejaratu, igual pribilegiatuak

• Aste honetan BARREN eko lantaldekook erredakzio aurrean izaten ditugun auto pilaketan inguruan kezkatzea nahi dugu: "Askotan atetik sartzea ere kosta egiten zaigu. Imajinatu itzazue zuen buruak lantokira sartu ezinik jendeak edozein moduz aparkatzen duela-eta. Kontua da, gu ez garela atetik sartu behar dugun bakarrak, herritar asko pasatzen baita BARRENetik egunero. Bestalde, arazoa larriagotu egiten da ostegunetan. Izan ere, barazki, fruitu eta arrainak kamioietatik sartu eta ateratzen dituzte Merkatu Plazan, eta askotan produktu horietako asko, eta baita kaxa hutsak ere, lurtean geratzen dira. **Hondakin horiek oso usain txarra ateratzen dute, eta atetik pare bat metroa ditugun kontainerren**

izango gara). Parkea, edo parkerako zonaldea eduki arren, egia esateko, aspaldi ipinitako burdinezko bi tramankulu besterik ez daude bertan. Eta umeak, jakina, gauza handirik ezin dute bertan egin. Ohituta gauden arren sasi artean bizitzera, atrebentzia izango al litzateke jolastoki aproposa Erretxindin ipintzea? Herriko beste leku batzuetan badakigu ipini direla eta ondo deritzogu, baina goikook hain ezberdinak al gara, horrenbeste merezi ez izateko"? Eskertuko nizueke agintzen duzuenoi lerro hauek kontuan hartzea".



zikinkeria eta kiratsa gehitzen badiogu, zeri toki batean lanean ari garela dirudi askotan. Gurekiko eta gure herritarrekiko errespetuagatik bada ere, autoak kontu handiagoz aparkatzea eskatu nahi dugu eta kontainerrek erabilizten dituztenei, herriz, barruan sar ditzatela zakarrak".



TXALOAK

• Henitar batek Santa Ana kalean, Eroski ondoan, **Udalak ipilua jarri dutela txalotu nahi du.** Lehenago kexa azaldu zuenez, oraingoan eskakizuna aintzat hartu dela eskertzea nahi izan du.

23 £[1 9 EZ[_\11?



Orairoe Illazia

Katalunian bizi den
e l go i bartarra

Pasa den domekan izan ziren hauteskunde autonomikoak Katalunian. Gutxiengatik izan bada ere Pujol izan da berriz ere irabazlea, nahiz eta Maragalek boto gehiago jaso dituen. Hauteskundeak aitzakia hartuta, azken urteotan Bartzelonan bizi den **Iruue Ulazia** elgoibartarrari deitu diogu. Hauteskundeak eta beste gai batzuek izan ditugu berbetarako motibo.

- Pujol izango duzuela president beste lau urtetan, ezta?

Bai, uste dut baietz. Egon ziren igande gauean momentu larriak berarentzat, baina azkenean inkesta guztiak esaten zuten bezala berak irabazi zuen.

- Pujolentzat eskañuak, Maragalentzat botuak eta gainontzeko alderdiek paktuak egiteko giltzak dituzte. Konformatzen ez dena, nahi ez duelako da.

Denek, esaten zutenek, bere helburu guztiak lortu zituzten. Alde batetik, *Convergencia i Uni6-k* hauteskundeak irabazi zituelako. PSC-PSOE-IC-ek ere bere aldetik, eta boto gehiago lortzeagatik, hauteskundeak irabazi dituztela diote, eta gogor erantzuten dute alderantzizko zerbaite entzun ezker.

Bestalde, bi txikiagoei buruz, pentsa behar da CIUk, bai PPrekin edo ERC-koekin (*Evquerra Republicana de Catalunya*) batu ezker, gehiago absolutu juxtu bat lortuko dutela. PP kanpaina guztian erabili duen leloa, "indar erabakitzailea (deesivo)" egiaztatu duela gogoratzen ari zaigu igande gauetik hona. ERC alderdia, berriz, bipartidismoaren aurrean aulki zenbakia ez jaisteaz harro agertzen da.

- Abstentzioak atentzioa eman digu. Jendeari politika gehiegi ez zaiola inporta dirudi.

Azken aldian, politikaren mundua ustel xamarra azaltzen zaigu. Hori dela eta ulertu daiteke jendearen interes falta. Pertsonalki, ez dut ulertzen jarrera hau.

- Motz-motz, esaguzu zein iritzi duten kataluniarrek honako kontzeptu hauei buruz:

- **Nazionalismoa:** bertako nazionalismoa: sentimendu bat da.
- **Espaniar nazionalismoa:** erasotzailearen nazionalismoa,
- **Espania:** atzerria.
- **Euskal Herria:** herri moduan lagunak. Oporretarako leku ona, giro onekoa.
- **Hizkuntza (katalanera):** norberaren hizkuntza. Identidade bat.
- **Etorkinak:** denetarik, batzuk bertako izakera errespetatzen dute, eta beste batzuk ez.

- Izan al zenuen inolako arazorik Kataluniako gizarteau Integrazteko?

Bat ere ez. Kataluniara etoni eta lehenengo gauza bertako hizkuntza ikasten hastea izan zen. Eta noski, gero erabili eguneroko bizitzaren arlo guztietan; etxean, lanean edo lagun artean. Uste dut oso garrantzitsua dela herriaren hizkuntzan erlazionatzea. Askok eskertzen dute. Ez ahal zaigu berdina gertatzen euskaldunoi?

E R R E

UN

/A/

125 urte baina OSASUNTSU



Unceta enpresak 125. urteurrena bete zuen pasa den urriaren 11an. Juan Pedro Uncetak sortu zuen enpresa Eibarren eta 4 generazio beranduago, Ricardo Garate eta Pedro Unceta dira Uncetako arduradun nagusiak. Duela 10 urte inguru leku falta arazoak medio, Elgoibarren finkatu ziren, eta bertan dago enpresaren egoitza nagusia ere. Gaur egun, industriarako erramintak erosi eta saltzen ditu Uncetak eta 40.000 produkturekin osatutako salmenta katalogoa du. 125 urte, urte asko direnez, sekretuaren berri galdetu diegu protagonistei, horrenbeste urte bete dituzten enpresa oso gutxi baitaude Estatuan.

pedrok Uncetak azaldu digu enpresaren historia eta beste hainbat gorabehera. "Juan Pedro Unceta nire binaitonak sortu zuen enpresa hau 1874. urtean. Bera artzaia zen, baina mendiak utzi eta Eibarera jaitsi zen. Ilepaindegi batean hasi zen lanean, eta diru piska bat ateratzeko limak erosi eta saltzen hasi zen denbora librean. Segituan konturatu zen negozio enentagania izan zitekeela. Izan ere, garai hartan torlojuak, limak eta antzerako erramintak ondasun preziatuak ziren Eibarko industria jaio berriarentzat, eta poliki-poliki negozioetarako afizioa sortu zitzaion".

AHALEGINAREN eta ESFORTZUAREN FRUITUAK

Enpresa asko sortuko ziren modu eta garai berdinean, baina gutxi dira 125 urte beranduago oraindik martxan dirautenak, eta martxa onean gainera. Datuak ikustea besterik ez dago: guztira 158 langile ditu estatuan eta atzerrian banaturik, eta bezeroak mundu osoan. 40.000 erramintaz osatutako salmenta katalogoa du, eta bertan agertzen diren produktuen %95a Estatuko edozein tokitatik eskatuta, 24 ordu baino gutxiagotan eskura daitekeela ziurtatzen dute. Gainera garraioa Uncetak ordaintzen du. Pedrok, 125 urte betetzeko sekretu bakarra sakrifizioa eta lana izan direla esan digu, "ahaleginik edo esfortzurik gabe ez dago ezer ere ez. Nire aurretik aritu diren familiako hiru belaunaldiak irabazitako dirtra hehin eta herriz enpresan inbertitu dute. Hori izan da horrenbeste urtez irautearen gakoa. Berehalako errenta bilatu ordez, epe luzera begira egin zuten lan eta ondorengook jaso ditugu fruituak".

ELGOIBARREN OSO GUSTORA

Leku faltak bultzatuta, duela 10 urte etorri ziren Uncetakoak Elgoibarrera. Pedro Uncetak garai gogorak izan zirela aipatu digu, "krisi garaiak bete betean harripatu gintuen, baina finkatzea lortu ondoren oso gustora sentitzen gara Elgoibarren. Makina erraminta oso enoturik dago hemen, eta hori dela-eta, ez gara inoiz lekuz kanpo sentitu". Momentuz 10-15 langile elgoibartar daude enpresan, eta Pedro oso gustora dago beraien lanaz, "pertsona eta langile moduan oso gustora gaude elgoibartarrek, momentuz 10 edo 15 bat dira, baina Elgoibarren gaudenez, nahiago dugu bertako jendea kontratatzea".

LAURENTINO GOMEZ, GERENTEA

Askok jakingo duzuen moduan, Unceta enpresak 2,3 milioi pta. bidaliko ditu Kubako eskola batera enpresaren 125. urteurrena dela-eta. Laurentino Gomez jaiotzez nafarra izan arren, Anusaten bizi da eta egun Uncetako gerentea da. Berak eman digu 125. urteurrenean enpresak antolatatu dituen ekintzen berri. "Duela 15 urte ingururik produktuak esportatzen ditugu Kubara. Orain dela 3 urte almazen bat ireki genuen bertan, eta 4 langile kubatar ari dira lanean. Urteurrena ospatzeko, elkartasunezko ekintza bat antolatzea pentsatu genuen, eta Kuban daukagun presentzia aprobetxatuz, gure elkartasuna hara bideratzea erabaki". Laguntzak, La Habanako Gesta Lanbide Heziketa Eskola makina erremintaz hornitzeko balioko du. Hala ere, aipatu beharra dago benetan modu bitxia aukeratu zutela Uncetakoek bai dirua batzeko, eta baita elkartasuna adierazteko ere. "Gure enpresako hornitzaile eta bezero guztiek, nola edo ha-



Laurentino Gomez Uncetako gerentearen enpresaren eta gizartearen arteko harremana oso garrantzitsua da.

la ospakizunetan parte har zezatela nahi genuen. Denak leku eta ekintza batean batzea ezinezkoa zenez, Uneetako bezerorik nagusienak diren 400 enpresei pilotuta zeukaten txatarra ekartzeko eskatu genien. Guztira 70.780 kilo txatarra batu genituen. Merkatuan 1,15 milioi pezetako balioa du eta guk gure aldetik balio hori bikoiztea erabaki genuen. Bestalde, txatarra guztia Guggenheim museoarean ondoan pilatzea erabaki genuen".

Txatarraren ekintza honek komunikabideetan ohiar-

makinako espasa deitzen diote, erramintek zertarako balio duten, nola erabili behar diren eta hainbat ezaugarri teknikorik buruzko argibide grafikoak ematen baiditu". Bestalde, elgoibarko jubenetako nesken eskubaloi taldeko babesleak dira. "Enpresa Elgoibarrera lekuz aldatu genuenean, bertara integratzeko eta herritarrek gure berri izan zezaten hartu genuen erabaki hori, eta ez gara damutzen maila altua erakutsi baitute". Laurentinoren iritziz, "enpresa munduak eta gizarteak ez dute harreman estuegia izan tradizioz. Gure ustez harremart hau oso garrantzitsua da, eta betidanik saiatu izan gara herritarrei Unceta enpresaren berri ematen".

Ernesto Arberas

urte gehien daraman langile elgoibartarra



11 Noiz hasi zinen lanean Uncetan?

1991. urtean hasi nintzen, hau da, enpresa Elgoibarrera eton i eta segituan.

11 Zein da zure lana?

Kalhatearen eta exportazioaren ardura duna naiz. Enpresak Kuhan duen almagazteko ardura, adibidez, nire esku dago. Katalogoan agertzen ez diren eskari bereziak ere gestionatzen ditut. Katalogo zabala izan arren, beti daude eskaera bereziak eta bezeroak gustura eduki behar dira.

11 Gustura enpresan?

oso gustura. Langileok oso ondo konpontzen gara elkarrekin. Urteurreneko afarian adibidez, estatu osoko langileak el-

kartu ginen Donostian eta oso ongi pasa genuen, emazteari ere atentzioa deitu zion gure arteko erlazio narak.

11 Noia bizi dituzu 125, urteurreneko ospakizunak?

Oso ongi. Lehenik Guggenheim museoarengan ingumetan ospakiLun ofiziala egin genuen agintariekin batent. Bertan, Uneetako langile gitzjak eta gure bikoteak bildu ginen. Pilarreko zubia aprobetxam genuen kanpoan dauden langileak etor zitezten. Gauean, beniz, enpresa-koentzako afarM ospatu genuen Donostian. Golden Apple Quartet moduko arnstek ta, ordu txikitan eman genion arnaiera afariari. Baina horrelako urtemuga hatek merezi zuen.

2010. URTEAN EAEko BI BIKOTETIK BAT BANATUKO
DELA IRAGARRI DUTE SOZIOLOGOEK

/2111 112 oro ustez hikoteak banatzeko arrazoi nrguria?



ISABEL ELORZA
41 urte, estetizista

Errespetu falta. Tratu txarrak izatia ere gertau laike. Bikotea mantentzeko formula errespetua da. Erraztasun gehiago dago bereizteko gaur egun, gustora ez bazaoz.




MARIBEL VAZQUEZ
51 urte, etxeoandrea

Bi pertsonen elkarrekin bizi nahi ez izatea. Lehen dena aguantatzen zen eta kitto. Orain, aldiz, askatasun gehiago dago eta ez dago zertan aguantatu behar.



LUCIA HERRERO
24 urte, farmazeutikoa

Konprentziva eta elkarrizketa ez egotia bikotian, gauzak esan in bihar dia. Horren falta badau ez dao zer eitxerik. Lehen aguantau biharra zauan, orain zorionez ez.




OANIEL LEGORBURU
71 urte, jubilatua

Gizartian aldaketia. Relijivak lotzen zaban lehen, oin berriz, alde batera lagata dao eta errezao apartatzen dia gaziak. Ez diote batere inportantziarik ematen ezkontziari.



TOMAS CANO
84 urte, jubilatua

Elkarrekin gaude andrea eta biok azkenengo 62 urtetan, orduan ezkondu ginanetik. Sakrifizioa, asko borrokatu eta elkarrekin ondo konpontzea da egin behar dena.



ISABEL RUIZ
81 urte, jubilatua

Gaur egun askatasun handia dago eta gazteek momentukoa bizi nahi dute, konprometitu gabe. Batak ez badu bestea errespetatzen ezkontza bukatu egiten da.

Miopia

Excimer laser

Lasik

Jose Ignacio Recalde Yurrita

Mediku Oftcdrnologoa

Laserrarekin Merbertzioak BILBON

Urtzaile kalea 2, 1 • EIBAR Tel.943 20 18 44



URTEURRENA

*1997ko urriaren 25ean, 57 urte zituela hil zen
RAMON SAN MARTIN O'TEGIren oroimenez
MEZA izango da Parrokian larunbatean,
hilare 23an, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.*



Bikoteev banaketn arrazolak

Bikoteen banaketarako arrazolen artean, gaur egun nagusia, fidelitasun ezarena da. Fidelitasun ezak eragina dauka bost kasutatik baten baino gehiagotan. Ondoren, gizonak emakumeari eragindako tratu txar fisiko nahiz psikologikoak daude. Hirugarrenik, alkoholzaletasunaren arrazoia ageri da bikoteen banaketan.

Banatzen direnen batzuetako edadea 42 eta 43 artekoa da. Datu hori adierazgarria da, ezeztatu egiten duelako banaketa hogeita hamar urte dituzten artean gertatzen delako ustea. Hala eta guztiz ere, kontutan eduki beharra dago ezkontzeko batez besteko edadea dezente atzeratu izanak eragina daukala.

Gaur egunean gertatzen diren hiru banaketatik, bakarra izaten da ezkontideek adostu gabea. Gainera, benetan gertatzen den banaketatik, bikotearen bereizte fisikotik, legez egindako bereizketara hamar hilabete igarotzen dira batzuetan.

Euskal Autonomi Erkidegoan egun banatzen diren bikote guztietatik erdiek zortzi eta hogeita urte bitarteko denbora tartea iraun badute ere, soziologoek diotenaren arabera, aintzat hartzeko ezaugarria da zazpi urtera arteko askotxo apartatzen dela.

Ezkondutuen gehienak, gurasoen etxetik bizitzetik zuzenean igaro dira, ezkondu ondoren, ezkontidearekin bizitzera. Beraz, aldeztuak diren euren kabuz bizi izanaren esperientziarik ez daukate.

Azterketek diotenez, banatzen diren pertsonak horretarako ahalmena daukatenak dira. Azken urteotan ugari egin da emakumearen lan merkaturatzea eta erabakigarri gertatu da autonomia ekonomikoa lortzea.

Iturria: Euskoldunon Egunkaria

rrfP [IfIFi] DEGRA



PIITPVCift -511(Afrillk) DEO

SIGLO XXI dekorazio dendakoa

-Mende berriari ongi etorria egiteko zerbait berezia egingo al duzu?

- Ez. Kontu hotTekin jendea erabat aztoratuta dabilela uste dut. Donostiako hotel guztiak adibidez, beteta omen daude.

-Zein izan da bukatzearen dagoen XX. mendeak utzi digun altzaririk poitena? - Cheage loungea, sofa-ohetarako bat da. Duela 70 urte sortua izan arren, oraindik oso diseinu berritzailea du.

-Egiguzuz bizitza zoriontsu bat izateko proiektua? Norbere buruarekin gustora egotea beharrezko baldintza da, baita zintzotasuna ere.

-Elgoibarko txokorik ederrena? San Lorenzo bailara.

-Nork dekoratu du zure etxea? - Ez dago modu berezian dekoraturik, nire gustoko altzari batzuk sartzea besterik ez dut egin.

-Dekorazio estilo bat? Minimalista. Barrokoaren kontrako estiloa da, funtzionalagoa da, eta espazio libre asko uzten ditu.

-Pertsona baten etxea nola dekoratuta dagoen ikusiz, bere izakera antze-man al dezakezu? - Bai, eta baita bere adinaren berri jakin ere.

-Kursaaleko kuboak ala Guggenheim museoa?

Kursaaleko kuboak asko gustatzen zaizkit.

-Zein zine izarren jauregia dekoratuko zenuke? Sean Conneryrena. Eskeziarra denez, estilo klasikoa eta landetxetako giroa batuko nituzke.

-Logela dekoratzeko kolore bat? Malba.

-Noren koadroa zintzilikatuko zenuke komunean?

- Nik Monet margolariaren bat daukat, asko gustatzen zait.

-Erosotasuna eta estetika bateragarriak al dira?

- Bai, dudarik gabe. Baina erosotasunak du lehentasuna.

-Zein da etxe bat dekoratzeko altzari "komodina"?

Aulkiak oso erabilgarriak dira.

-Bizitzeko apartamentua ala txaleta?

- Aukeratzekotan txaleta nahiago dut.

-Besteengan miresten duzun bertutea? - Zintzotasuna.

-Zeri egiten diozu kasu, bihotzari ala buruari?

- Bihotzari, batzuetan gehiegi gainera.

-Zortean kasualitatean ala esfortzuan sinisten duzu?

- Esfortzuan eta zortean, batzuetan lan asko egin arren, zortea ere beharrezkoa izaten baita.

Babes Ofilijailako naatarake Elgoibarko 46 familiek egin dute eskaera Guztira 160 etxebizitza sozial eta kontzertatu eraikiko dira

Eusko Jaurlaritzak onartu du Urruzunoko Babes Ofizialeko Etxeen proiektua, denera 160 etxe eraikiko dituen. Etxebizitza hauek bi eratakoak izango dira: batetik, 40 (bi bloke) sozial eraikoak izango dira, eta bestetik, beste 120ak (sei bloke), kontzertatu eraikoak. Etxebidek, Babes Ofizialeko Etxeen eskaerak gestionatzeko Eusko Jaurlaritzaren erakundeak, horrelako etxeetan bizitzeko 46 eskaera jaso ditu Elgoibartik. Aurrekontua, osotara, 1.492.035.229 pezetakoa da.

Etxebizitza sozial eta kontzertatuen arteko aldea modulook ezartzen dute: sozial gisa izendatutakoek 0,85-eko modulua izango dute, eta kontzertatuek, aldiz, 1,4koa. Aldi berean, lehenengoentzat garaje eta trasteroari



Lehendabizi etxebizitza sozialak eraikiko dira eta 15 hilabeteko epean bukatuta egon beharko dute.

dagokion modulua 0,45koa izango da eta bigarrenentzat, 0,5koa jarriko da. Bai batean zein bestean, metro karratuak 98.500 pezeta balioko du.

Horrela, etxe bakoitzaren azken kostua zein izango den jakiteko, ondorengo eragiketa egin beharko da:

[(etxearen metro erabilgarriak x ezarritako modulua) + (garaje eta trasteroaren metroak x ezarritako moduloren balioa)] x metro karratuaren prezioa.

Urrian zehar oinarrizko proiektua agertuko da BOEn. Azaroan egitasmoa egingo duena aukeratuko da eta honen 3 hilabeteko epea edukiko du eraikin proiektua aurkezteko. Lehenengo etxebizitza sozialaren eraikitzea hasiko da eta 15 hilabeteko epean amaituta egon beharko dute. Ondoren, kontzertatuen txanda izango da. Atal honetan, aukeratutako promotorak lanak egingo ditu eta ezarritako prezioen arabera, bera arduratuko da gestioaz eta saltzeaz, Eusko Jaurlaritzak horretarako ematen dituen laguntzak baliatuz.

IbErrosario kaleko zozketaren zenbaki sarituak

Errosario kaleko jaien aitzakian egindako zozketan ateratako zenbaki irabazleak honakoak izan dira: lehen sariaren zenbakia 588 da. Beronen jabe denak telebista dotore bat eskuratuko du. Bigarren sariaren zenbaki irabazlea 210 da. Zenbaki hau hartu zuenak urdaiazpiko eta ardo botilak etxeratuko ditu. Sariak jasotzeko epea 20 egunetakoa da, tarte horretan ez bada inor agertzen saridunak oparia jasotzeko eskubidea galduko du.

Udalak autoen eta oinezkoen trafikoa arautzeko ikerketa egingo du

Alkatea Getxon izan da bertan hartutako erabakiak ezagutzen

Udalak oinezkoen eta autoen trafikoa arautzeko neurriak buruzko ikerketa bat eskatu dio *Leber* enpresari. Ikerketa honek emandako datuen ondoren, neurri egokiak hartu nahi dira herrian oinezko eta ibilgailuen artean arazoak baztertu eta elkarren artean konponbide egokia aurkitzeko.

Ikerketa honen harrian, Elgoibarko alkatea, Guillermo Garate, duela gutxi Getxoko herrian izan da, trafikoa zuzentzeko hango plangintza gertutik ezagutzen. Besteak beste, oinezkoentzat ezarritako guneak, bide gorriak, zebra pasabideak eta apar-



kalekutarako egokitutako lekuen berri jaso du Garatek. Hain zuzen, Leber enpresa bera izan da Getxon Udalari trafikoari buruzko ikerketa egin diona, orain Elgoibarrek eskatu dion antzerakoa.

Ikerketak kontutan eduki beharko du aurki Elgoibarren izango diren aldaketak, bereziki Madala aldean, bertan ehundik gora etxebizitza eraikitzeko asmoa baitago. Etxebizitza horien eraikuntzak ingurune horretan, aldaketa handia ekarriko du autoen eta oinezkoen mugimenduan herri osoan eta hortaz, arreta berezia eskaini beharko dio.




Txandakako lehen injineruen graduaketa

Aldizkako Injinerutzako lehen promozioaren graduaketa ekitaldia izan zen joan zen ostiralean Makina Erramintaren Institutuan. 30 ikaslek eskuratu zuten diploma era honetako lehenengo ikasketak burutu ostean, izan ere, Makina Erraminta Institutuak estreinakoz antolatu ditu enpresen neurriera injineruak sortzeko ikasketak hauek. 3 urteko karrera hau bukatu dutenen %86-a jada lanean dago; hauen artean, %65-a injineru lanetan ari da propio eta beste %25-a aldiz, taldeetako arduradun bezala dabil.

Angel Loiolaren izat izan da San Migel jaietan zozketatzen zuten txekorra

San Migel jaietan egindako txekorraren zozketako zenbaki sariduna 1.020 izan da, eta txartel sarituaren jabea Angel Loiola samnigearra. Angelek eramango du azkenik txekorra etxera, baina hainbat komeria pasa ondoren. Izan ere, zenbaki sariduna 11.137 izan zen baina ez zen jaberik agertu. Angelek esan digunez, "20 urte da ruauz txekorraren zozketiakin, eta aurten izan da zenbakixa lehenenguan azaldu ez dan lehenengo urtia". Beraz, ordeko zenbakia-



ren jabeari zegokion saria. Guztien harridurarako ordea, 2 txartel irabazle azaldu ziren, Elgetar batena eta Angelena, "Zeinena zan benetakua jakitxeko inprentakuakin geratu ginan eta buruari mila buelta eman ostian, elgetarra txartelakin etoni zanian argitxu genuen dana. Itxura danez bista bajua zakan gizonak, eta 10.020 ikusi hiharrian 1.020 ikusten zaban. Kostau jakon bi zero zaozela konturatzea, boligrafo gorri xakin zeruen artian puntua in nionian bakarrik konturatu zan".

Kontsumoari buruzko tailerrak antolatu dituzte ikastolan

Kontsumoari buruzko ikastaro ezberdinak izan ziren joan den astean Ikastolan. Ikastaroak. Eusko Jaurlaritzak antolatutakoak dira eta orain Elgoibarren eman dituzte Ikastolako irakasleek hala eskatuta. Hiru egunetan zehar tailer ezberdinak egon ziren, irakasle, ikasle nahiz gurasoei zuzenduta. Ikastolatik jakinarazi digutenez, gai ezberdinak landu zituzten: Euroa, etxeko ordainagiriak, estetika eta elikadura, janariaren analisiak eta ingurugiroa. DBH 1 eta DBH 2ko ikasleek era aktiboan parte hartu zuten eta oso gustura gelditu ziren.

Silvia Hernandezek kontzertua eskaini du Zaragozan

Silvia Hernandez Elgoibarko pianojoleak Zaragozako Luis Galve aretoan kontzertua eskaini zuen "Gipuzkoa" Kamara abesbatzarekin. Miguel Amantegiren zuzendaritzapean, Antxieta, Brahams edota Aita Donostiaren lanak eskaini zituen, beste batzuekin batera, abesbatza gipuzkoar honek Aragoiko hiriburuan. Izan ere, hoguei musikarik osatutako koru honek, euskal folkloreko partituren ikerkuntzan dihardu, historiako konpositore nagusien lanei arreta eskaintzeaz batera.



Madalako etxe berrietara gasa sartzeko lanak bukatu dituzte

Madalan eraikitzen ari diren etxe berrietara gasa sartzeko lanak direla-eta, Madalatik anbulatoriora doan bidea urriaren 12an itxi zuten, gasaren betetze lanak ostegunean, hilaren 2 lean, bukatu zituzten eta ahalik lasterren bidea irekitzeko asmoa dute. Egoera honek zenbait trafiko arazo sortu ditu, herri erditik auto gehiago ibili baita. Udaltzaingotik adierazi digutenez, "autoen gehiegizko abiadurari buruzko kexa bat baino gehiago jaso dugu".

• UP kolektorea eta depuradora 2003. urterako egingo direla espepo da

Pasa den hilean, gintza eta Obra Hidrauliko-en diputatua, Koruko Aizarna Elgoibarren izan zen uholdeen aurkako proiektuak ezagutzeko eta azaldu zenez, 2000. urtean has daitezke kolektoreareu inguruko lanak. Urtebete beranduago, berriz, Arriaga inguruetan depuradora eraikitzeari ekingo diote, ezeren okerrik ez bada eta dau den a.smoak ezustekorik be betetzen badira.

Bi proiektuak 2003. urterako bukatuta egotea espero da. Kolektorearen bidez, industria eta herriko ur ondakinak batuko dira. Ondoren, depuradorara eramango dituzte eta bertan, prozesu baten ostean, garbitu eta berriro ibaira bueltatuko dira.

Lan hauek oso garrantzitsuak dira Deba ibaiaren berreskurapenerako. Hala jakinarazi zion herriko alkateak, Guillermo Garatek, Koruko Aizarnari egun batzuk lehenago berarekin egindako bilera batean. Horrekin batera, bilera berean, Elgoibarren uholde arriskua gutxitzeko egitasmoa burutu beharra adierazi zion alkateak Gipuzkoako Foru aldunari. Egitasmo horrek, hain zuzen ere, Deba ibaiaren ubidean, Goiko Errotatik San Pedroko etxeen arteko lekua hartu beharko luke bere gain.

2000. urtean zergak 3 igotzea onartu du Udalak


Erabaki honek Elgoibarko fiskalitatea inguruko herriekin parekatu nahi du

Udal batzarrak hilaren 8an eginiko bileran datorren urterako zergen igoeraren gaia aztertu zuen. EAJ eta EA alderdiek osatutako Gobernu Batzordeak, zergak %3 igotzea proposatu zuten herriko zerbitzuak hobetze aldera, eta proposamena onartu egin zen, aginteko bi alderdien eta PP alderdiaren oniritziarekin.

EAJ eta Eak azaldu zutenenez, igoera eskaerak herriko zergak inguruko herrietakoen parekatzea du helburu, Azkoitia eta Oñati erreferentzia hartuta, 10.000 eta 15.000 biztanle arteko herriak izanik. Egun Elgoibarrak, presio fiskalari dagokionean, azkenaurreko lekua betetzen du herrien zerrandan, Azkoitiaren aurretik, Azpeitia, Andoain, Lasarte, Bergara edo Eibarren atzetik.

Horrela, gobernu batzordearen proposamenak zerga batzuk urteko Kontsumoaren Prezioen Indizearen arahera igotzea aurreikusten du, beste batzuk izan ezik. KPI-ren neurritik kanpo geldituko diren zergak, ur, zabor eta estolderiari dagozkionak (zerbitzuaren kostuaren igoera edukiko dute hauek, % 2.45ekoa), zaborren bilketarena (% 4,20-ko igoera) Debenen Mankomunitateko herri gutietik onartu zutena, eta, zenbakiak borobiltzeko, Kirol Patronatuarena (% 2-ko igoera), dira.

Euskal Herritarrok alderdiko Izaskun Arozena ordezkariak hurrengo plenora arte atzeratu zuen iritzia, azterketa sakonago bat egiteko astia behar zuela argudiatuta. EH-ren ustean,



hori bai, hurrengo igoeretan, Udalak kontutan hartu beharko luke gehiago herritarren iritzia. Era berean, harreman estuagoa egon beharko luke Udal eta herriko elkarte, sindikatu etab. en artean hartu beharreko neurriak zehazteko. Halaber, Euskal Herritarrok alderdiak, Udalak Udal Finantziario Foru Fondoetatik (Udalek Foru Ogasunetik jasotzen duten dirua) diru gehiago jasotzea eskatu zuen, egungo %10etik %15-era pasata.

PSE-EE-ko ordezkaria, berriz, Ovidio Campello. ados azaldu zen igoerarekin baina KPI-ren neurrikoarekin, eta ez horren gainetik egindakoarekin. Campellok kritikatu egin zuen proposamena prestatzeko erabilitako modua, oposizioko alderdiek ez baitzuten ekarpenik egiteko aukerarik eduki.

Iñigo Arkauz, PP alderdiko zinegotzia, ados agertu zen Gobernu Batzordeak egindako proposamen guztiekin.

ZAHARRAK BERRA

3. adinari zuzenduriko gehigarria



40. zkia - 1999ko urriaren 22a



Jabier Galdos: "Marruecos beste mundu bat da"

Jabier Galdos-ek asko bidaiatu du penintsulan eta Europan zehar batez ere Baina azken urteetan lau alditan egon da Marokon (Marruecosen). 1997an izan zen estrainekoz nire suhia bisitatzen eta harez geroztik, beste hiru alditan bueltatu da, jarraian urtez urte 1998an izan ezik. Bidaia hauei esker ongi ezagutzera heldu da Europa Mendebaldearen eragina gero eta gehiago hartzen ari den Iurralde hau.

rtnti inrrirt kiAmin-rnban 11.74.71


-Beti gustau izan jata ezagutzia beste herrixak, lekuak, onak eta txarrak, denetakuak. Hango bizimoduak, han zela bizi dian, ze ohitxura dakaben ezagutzia. Askok gustau izan jataz geografiako liburuak eta handik aukeratu tokixak, gero hara juteko.

-Urte askuan Kataluniara jun gera. Baina aurretikan, beti, alabia gaztia zanian, (udaria aprobetxatzeko) Galiziara jun izan ginan. Villagarcia de Arosan, San Vicente de la Barqueran egunak pasatzera. Jeneralian penintsulan goixan ibili naiz, ze agostuan beru haundixa itxen dau Mediterraneo aldiari. Azkenengo urtietan Katalunian, Sitges-en egon naiz.

-Suhia dakat Tanger-kua, alabakin ezkondata, nahiz eta oin Donostian bizi dian urte askuan. Haren gurasuak ezagutzeko, juteko esaten ziuene beti eta azkenian jun nitzan. Handik aurrera beste hiru aldiz jun naiz.

-Hara heltzean, aldaketa handia sumatzen duen?

-Itzela, beste mundu bat da haura. Ohitxura kontuan, bertakuek ez dabe alkoholik edaten, baina kafia, kafesnia eta te asko hartzen dabe. Kafalak saloi haundixak izaten dia, eta bertan gizonezkuak bai, baina emakume gutxi ikusten da. Ezin laike sinistu zelako futbol afiziva dauan, gehixenak gainera BaNa eta Real Madridekuak dia. Jendia zoratuta dao futbolakin. Oin gaztiak-eta txandalakin ikusten dia, eta neskek ere hasi dia Europako modura jazten.



Bakarrik ostirala eukitzen dabe, ostirala euren eguna da, orduan gehixenak euren erropekin jazten dia. Merkatuek piskat beldurtu itxen dabe, edozer gauza saltzen dabe, gauza onak bebai, urrezko eraztunak, larrua... Hori asko dao.

-Bertakuekin mugitxu izan gera. Suhian koinatua, Tanger-ko portuan dao enpleauta eta harekin kotoxian junda, Tetuan, Xauen... ikusten egon ginan. Beste urte batian, la ruta de Hercules in genduan. Bigarren urtitan, andriak eta bixok, organizatutako biajian, las cinco cludades imperiales ezagutu genduzen: Fez, Marrakech, Casablanca, Rabat...

Rabat da kapitala. Baina, Casablanca, askogatik haundixena da, 3 milioi biztanle ditxu. Ez dau ematen Marruecos, arkitektura etxiak-eta Frantziako estilokuak daude. Jendiagatik ez bada, hemen zaudela ematen dau, bestietan bai. Tanger puerto franco zan, oin abandonatuta dao piskat. Fez inpresionantia da. Kale estu estuak, giakin jun ginan, eta ez galtzeko esan zigun, bestela igual egunak emango genduzelako handik irten barik, mila kalejoitan.

GAZTAROKO UROITZAPEAK

Yurian

"Nere aitxa bizi izan balitz, ni ere ebanistia izango nintzan"

Julian Iriondo 79 urteko elgoiba. - tarra da. Aurretik beste lan batzuetan jardun badu ere, 1953. urtetik altzariak saltzen aritu da jubilatu den arte. Gaur egunean erretiroa hartuta badago ere, egunero dendan egoten dela esan digu, behar denerako laguntzeko prest.

- Gaztetan hasi al zinen lanean?

- 16 urtekin hasi nitzan lanian *Gabilondo y Compañian*, 1936. urteko junixuan 30ian. Handik egun batzuetara gerriak irten zaban. 8 urtekin umezurtz gelditxu nitzan, hori ez bazan gertau ni ebanistia izango nitzan. Nere aitxa zana ebanistia zan. Orduan gutxi egoten zian, bera zan Vitorixako *Escuela de Artes y Oficios*-eko ikaslia. Gero, nere osaba, haura ere ebanistia zan, eta bixak zeuden hemen lanian. Aitxitxa ere ebanistia izan zan.

- Komertziantze hasi aurretik beste lan batzuetan jardun zenuen, ezta?

Gabilondonian urte mordu egon nitzan. Gero gerria etorri zan eta nola *Gabilondo* arma fabrikia zan, orduan ejerzituak fabrikia hartu eta militarizau in zaban. Han in bihar zan militarrek esaten zabena. Egon ginan militarizauta gerra guztian, lanian berak esaten zabena itxen. Gerra ondoren, han segidu nabari urte batzuetan eta gero alde in nabari Pedro Loiola fabrikara, prensa eta taladrak itxera. Beste lan bat zan haura. Handik *Arana y Uribera* jun nitzan, beste fabrikante batera. Handik *Latxa y Juaristira*. Enpresa honek danak metalurjikuak zian. Handik etorri nitzan negozioa ipintzera 1953an. Hortan jardun dot jubi]au arte. Baina ni ez naiz konsideratzen jubilauta. Ni goizian jaiki eta hona etortzen naiz, bata edo bestia itxera. 80 urte ixa eta hemen gabiz ondiokan.

Orduan gogor egiten zenuten lan.

- Lana zapatuetan ere itxen gen-

duan, zapatuetan gutxitxuau, hori bai. Goizian seiretan hasi eta atsaldeko seirak arte. Astegunetan atsaldian ordubata terdietatik zortzirak arte itxen genduan lan. Gero jun zan aldazten. Baina orduan, sanbartolometan, bizperan, 3etan kanpaiak jotzen zabenian kalera, jai hartzen genduan. San Bartolome egunian eta Txiki eguna ere jai, eta hurrengo egunian lanera. Agostuan hiru egun zian, gero lanera.

- Lanaz gain kirola ere egiten zenuten.

- Goizian seiretan hasten ginan lanian, hamabixak arte. Bertan gosalduta eta segi hamabixak arte. Hamabixetan bazkaltzera, bazka]du eta frontoera. Ordubatian danok frontoian itxen genduan pelotan. Ordubataterdietan, izerdi baten, tailarrera, garai hartan danak herri barruan zeudelako. Udan, argi zeuden momentu guztiak frontoiraiko zian. Gu hazi gera frontoian. Abarketak kendu, txaparian laga frontisian eta dale, bestela apurtu itxen zian eta ez zauan dirurikan berriak erosteko. Eta gero fubolian ere bai, Lerunen, baina Lerunera jun in bihar zan eta hainbeste ordu lanian in eta gero, ez zauan gogorik haraino juteko.

- Altzariak lehen era artesanalian egiten ziren, ez?


- Egurren asuntua asko aldatu da, sobre todo, industria, transformazio mailan. Lehengua artesia zan, dibujua in bihar zan aurretik. Ni ointxe ere emozinatu itxen naiz, Elgoibarko sakristian, Elizan armarixo bat dao nire

aitxa zanak indakua. Han dao ondiokan. Jatorriz mahai haundi bat zan, altura haundikua eta sakristixa erdixan zauan. Oin hori aldatu in dabe eta ipini dabe armarixo, baztarrian, baina han dao ondiokan. Ni hara juterakuan emozinatu itxen naiz piskat ondiok.

- Negozioa asko aldatu al da ordutik?

- Gaur, gauzak azkar eta ondo itxen dia. Makinak daude tailerretan, prezisio haundixakin egurrian. Gaur pedidua hartu eta orduan itxen da. Lehen fabrikante batek itxen zaban dormitorio bat eta

bere meritua izaten zan dormitorioak reserban euki, stock-ian. Fabrika hoiek ez daude oin, beste modu batera funtzionatzen da. Fabrikantia zain egoten da zuk proiektua bialtzeko. Bialtzen diozu hari klientiak segun ze presupuesto dakan. Klientiak gaur indar haundixa dauka, berak dauka azken berbia.





ETA ZUK, LLR DIOZU?

Gidatzen al duzu autoa daukazun adinarekin?

Edadea ez da gaur egun oztopoa lehenago egindako jarduerak ez egiteko. Hirugarren adinera heldu arren, makina bat dira jubilatuak pertsonak oraindik egiten dituzten ekintzak, autoa gidatzea, esate baterako. Dena dela, lehenago baliabide ekonomikoak justuagoak zirela-eta, gidatzeko karneta atera ez zuten jubilatuak aurkitu ditugu. Egoera hau, galnera, hedatuagoa dago emakumezkoen artean. Lehen ez ziren, ez, asko autoa gidatzeko baimena ateratzeari ekiten zioten andrazkoak. Bistan dago, emakumeen artean, batez ere oraingo kontua dela bolante aurrean jartzeko erabakia hartzearena.



Ernesto Matias

Nik ez daukat ez karnetik, ezta kotxerik ere. Sekula ez dut gidatzeko gogorik eduki, ez dut nahi izan, oso urduria naizenez. Ez dut inoiz ere probatu, ez dudala horretarako balio pentsatu izan dudalako. Lagunekin joan naiz beharra eduki dudanean.



Erasio Melgosa

Orain, gutxi. Gainera, andrea gaizki daukat eta ezin dut. Baina ahalmena badakat nahikoa eta sobran. Orain oporretan gidatzen dut, Burgosera, herrira joateko. Lehen bastante gidatzen nuen, eguraldi ona zegoenean Debara eta beste leku batzuetara. 1974ean atera nuen gidatzeko karneta. Baina ez nuen lanera joateko autoa erabiltzen, gertu neukan-eta.




Roman Igartua

Ez dut sekula nahirik eduki gidatzeko karneta ateratzeko. Beharbada, maniaren bategatik, edota egoten diren auto istripuek ezartzen duten presioagatik ez dut lortzeko intentziorik eduki. Autoan ibiltzen naiz baina lagunekin. Zerbaitek tentatzen bazaitu atera egiten duzu baina honek sekula ere ez nau erakarri.



Miguel Ubiria

Nik 1956an atera naban konduzitzeko karneta. Badia urtiak atera nabala. Baina gaur egunian ere hartzen dot kotxia. Jubilauta nauanez, baten Eibarrera juateko, bestian Donostira bueltatxo bat eitxeko... Gaur, por ejemplo, in dot nik bueltia Eibarrera.



Pako Muguruza

Nik ez karnetik eta ez kotxerik, ez dakat bixetako bat ere. Lehen dirua falta gendun halakua ateratzeko. Oin bixak falta, dirua eta osasuna. Orain artian beti lagunekin moldau izan naiz inungo problemaripe.



Zahartzeari beldurra

obiak, zalantzak eta beldurra gizakiari loturik daude bizitza osoan zehar eta ondorioz present daude baita ere zahartzerakoan eta jubilatzean. Bizitzaz gozatu nahi bada, beldurrei aurre egin behar zaie. Arrazoirik gabeko beldurrak, gehiegizko kezkek pertsona nagusien iharduera geldotzen dute, beraien itxaropena itotzen dute eta antsietate, angustia eta egoneza sortarazten dute. Berez jubilazio atsegina izan behar dena, era honetako zalantzak direla-eta, bizitzaren azken urteetan, zorientasuna lortzeko bidea oztopatua gelditzen da.

Beldurrik handienak haurtzaroan, nerabezeroan (adoleszentzia) eta ondorengo gazte urteetan jasaten badira ere, 60 urte bete ostean, egonkortasun hamarkada batzuen ondoren eta harreman finkoak ematen duen sendotasuna igarota, aldaketak agertzen dira bizitzan, lehenagokoak edo berriak diren beldurrak bultzatzen dituztenak. Aurre egin beharreko lehenengo beldurra, zahartzeari berari zaion beldurra da.

Gaur egunean, estatistikek azaltzen dutenaren arabera, beldurrik hedatuena adineko pertsonen artean, osasuna galtzeko arriskuarena da; apurka-apurka buruko gaitzeren bat sufritzeko kezka agertzen da, *Alzheimer* gaitza pairatzen dutenekin gertatzen den antzera. Horren ondorioz beste pertsona batzuen menpe bizitzeak ikara sortzen du.

Beste beldur zabaldu bat, zailtasun ekonomikoak edukitzeari loturikoa da. Pobrezia jasateari beldurra diote adineko zenbaitek, horren ondorioz gosea, hotza eta miseriak dakartzan beste ondorio larri asko etor da kielakoan.

Hala eta guztiz ere, beldurrik sakonena isolamentua, bazterketa, bakardadea eta marjinazioa ekar dezakeenari buruzkoa da. Beldur honen agerpen argiena zera da: seme-alabek norbera baztertu eta ahaztea, haiekin harremana galdu eta azkenik, senideek, borondatearen aurka, erresidentzia batean sartzea.

EZETIA · ERREZETIA



Ana Maria Laza Bakaillaua pipar morroiekin

OSAGAIAK:

(4 pertsonarentzat)
1 kg. eta 200 gr. bakilau, berautakua eta zati potoluak eginda, 4 pipar morroi handi, 2 arraultza, olixua, irina eta gatza.

PRESTAKETA

Arrainari eskamak ondo kendu eta gero, bakilaua uretan pasatzen dogu eta ondo garbitxu dogulataz seguru gaudenian trapu batekin sikatzen dou. Gero arraultzia eta irinetan pasatzen dogu ondoren sartañan frijitzeko. Bestalde bakailauari lagunduko dioten piperrak prestatuko ditxugu. Lehenengo piperrak erre, gero azala eta hazixak kenduko diouz piparrei. Gero zatitxu eta gatz piska bat botatzen diegu. Amaitzeko bakailau frijitzua lurrezko kazuela baten ipintzen dogu eta gainean, piparrak eta piparren saltsia botatzen diogu. Nahi dabanak ur piska bat ere bota leike. Kazuela tapau, su bajuan piparrak ein arte eduki eta kazuelia noizian behin erain besterik ez da ein bihar. On ein deizuela!

SRREZETIA
mrKEZETIP

Pasa den astean kontatu genizuen moduan, Ojmar enpresaren proiektu bat izan da X. Toribio Etxebarria Enpresa Sarien irabazlea. Proiektu honen koordinatzaile nagusia Jokin Agirrezabala, 32 urteko elgoibartarra izan da. Giltzen ordezkariadun txartelak erabiltzeko proiektua izan zen irabazlea eta guk xehetasun gehiagoren bila jo dugu Jokinengana.

Agirrezabala

"Sariek diruaz gain, izen ona ematen diote enpresarr

—Noiztik Ojmarren lanean?

- Orain dela 5 urtetik nabil Ojmarren lanean. Enpresa hau duela 2 urte etorri zen Elgoibarrera, izatez Eibarko enpresa baita. Guztira 90 langile baino gehiago gaude bertan.

- **Nola bururatu zitzaizuen sarraila elektronikoen baten proiektua aurkeztea?**

- Ojmarren sarrailaekin egiten dugu lan, baina duela 2 urte ohiko sarraila arazoak zehazki eta, sarraila elektronikoen berri bat sortzea erabaki genuen. Gerentearekin eta zuzendari teknikoarekin bildu nintzen, eta "chip" memoriadun txartelak erabiltzeko proiektua jarri genuen martxan. Izan ere, sarraila elektronikoen asko daude merkatuan, baina sarraila hauek banda magnetikoak dituzten txartelak erabiltzen dituzte. Txartel hauek "Chip" memoriadunak baino errazago apurtzen dira, bizitza laburragoa dute. Gainera, seguritate gutxi eskaintzen dute, kopiatzeko oso errazak baitira.

—Beraz, zein dira zuen sarraila elektronikoen abantailak?

- Abantaila nagusia seguritatea da. Gaur egun edozein giltz kopiatu daiteke eta hiri handietan arazo handiak izaten dituzte. Giltzaren kopia egin ondoren, sarrailak ez du balio. Gure "Chip" memoriadun txartelak, berriz, kodea aldatzearekin nahikoa da. Bestalde, egun merkatuan dauden sarraila elektronikoen garestiak dira, eta gure asmoa prezio baxuko sarrailak egitea da.

—Prestigio handiko saria irabazi duzue, ezta?

- Bai hala da, *Toribio Etxebarria* Enpresa Sariak entzute edo fama handia dute. Enpresarentzat ere garrantzitsua da horrelako sari bat irabaztea, diruaz gain, izen ona ematen baitio. Bestalde, Euskal Herrian ikerkuntza atalean maila altua dago eta Euskal Herriko enpresa askok parte hartu dute. In-

bertsio eta lan handia egin arren oso gustora gaude sariarekin, eta etekinak laster ikusiko ditugula uste dugu.

—Maila handiko lehiakideak izan al dituzte?

- Bai. Guztira 23 proiektu aurkeztu dira, eta maila handiko proiektuak aurkeztu dira. Batzuk oso ikusgarriak izan dira. Donostiako unibertsitatekoek, adibidez, golf-simulagailu bat aurkeztu zuten. Ordenagailua erabiliz, golf-eko kolpe bat 3 dimentsiotan ikusteko eta probatzeko aukera eskaintzen zuten. Simulagailuak gorputzari loturiko sensore morderoa eta kaskoa zituen, benetan ikusgarria zen. Hala ere, sari hau irabazteko proiektu on bat aurkeztearekin ez da nahikoa.

—Zer gehiago behar da?

- Batzuetan proiektu interesgarriak eta politak izan arren, enpresa mailan ez daukate erabilerarik. Gurea, sarraila elektronikoen baten proiektua izateaz gain, enpresa proiektu bat ere bazen. Enpresarako produktu osoa izatea ezinbestekoa da. Batetik, produktu berri horrek merkatuan dauden antzerako beste produktuekin konpetitzeko gai izan behar du. Bestetik, gure enpresa produktua produzitzeko prestatuta dagoen ikusi behar dugu. *Toribio Etxebarria* sarietan hauek guztiak kontutan izaten dituzte. Baita zenbat lanpostu berri sortuko liratekeen ere.

—Zein izango dira zuen bezeroak?

Erabilpen publikoa duten egoitzetako sanerak eta takilak edo armaintak dira gure helbunt nagusia, azken fmean sarraila txikiak inugatu nahi dugu, eta ez ute handietara: tren geltokietako armairuak, kiroldegia etab. izango dira gure bezeroak. Elgoitnuto Kiroldegiko sarraila elektronikoen adibidez, guk jarri genituen.

EESTEK ESANA

"Proiektu gogor eta zail batean oso ondo moldatzen jakin du." PEDRO ARRIOLA, 'Ojmar'reko gerentea.



Yugilaluenizai 'O

1999ko AZAROA

• IRTEERA BILBOTIK
HEGAZKINEAN

7 GAU PENTSIO 050AN

MALLORCAKO LA PALMA (Hiriburua)

2*-eko hotela . .39.500 pta.tik/pertsonako

PUERTO DE LA CRUZ (Tenerife)

3*-eko hotela . .43.400 pta.tik/pertsonako

KANARIETAKO LAS PALMAS

3*-eko hotela . .51.600 pta.tik/pertsonako

ARRECIFE (Lanzarote)

3*-eko hotela . .58.400 pta.tik/pertsonako

• IRTEERA BILBOTIK

7 GAU OHEA eta GOSARIAREKIN

VIGO 1Galizial

3*-eko hotela . .41.300 pta.tik/pertsonako

BARTZELONA

3*-eko hotela . .47.000 pta.tik/pertsonako

MADRIL

2*-eko hotela . .46.900 pta.tik/pertsonako

VALENTZIA (Hiriburua)

3*-eko hotela . .46.200 pta.tik/pertsonako

ALICANTE 1Hiriburua)

3*-eko hotela . .40.700 pta.tik/pertsonako

GRANADA (Hiriburual

3*-eko hotela . .40.100 pta.tik/pertsonako

Eta gainera, prezio bereziak
ditugu **ERROMA**ra,
PARISera, **LONDRES**era,
LISBOAra
etab. joateko.

Baita ere, **EEB**etara,
MEXIKOra, **KUBA**ra,
PUERTO RICOra etab.

Zatoz eta kontsultatu!

411. ■

VIAJES **nieg,** eiouxK
3111.3R0 EXPCESS

Foruen enparantza, 3
TeI: 943 74 39 12

Viva
IBERIA

OHARRA: Aireportuko tasak ez
daude prezioan sartuta.

Francisco
Iorraga
Amesti

(1904-1989)



• 1904ko apirilaren 9an jaio zen Eibarko Aginaga bailarako Orbe baserrian. Lau anai-an'eba izan ren, bera zaharrena. Haurtzaroko ikasketak Aginagako eskolan egin zituen.

• Gazte sasoiak Aginaga eta Barinaga inguntetan pasatu zuten, lagun koadrilarekin esku pilotan eta lasterka eginez igande eta jai egunetan. Izan ere, gainontzeko egunetan familiari lagundu beharra izaten zuten baserriko lanetan.

• 13 urte zitucla, Elgoibarko San Pedro auzoko Arane baserrira etorri zen bizitzera. Bertan zerbitzari lanak egin zituen eta gogor lan egin zuen. Heldu bezain laister egin zen ezaguna bailaran eta ingurukoek estimu handitan zuten.

• Asko gustatzen zitzaion en'omerietara joatea eta baita soinu-joleari panderoa joz laguntzea ere. Soldaduzkara joatetik libratu ostean, San Pedro bailarako Ipintza baserriko Juliana Leterekin ezkondu zen, eta baserriko maiorazgoa izatera pasa zen.

• Ipintza baserriko lana nekosoa eta zaila izan arren, senar-emazteak gogor lan egin eta aurrera ateratzea lortu zuten. Guztira, lau seme-alaba izan zituzten.

• Francisco gizon zintzoa eta errespetagarria izan zen. Orduko ohiturei jarraituz, bailarako maiondomo lanak ere egin zituen. Sinezmenekoa zen eta gogoko zuten igandeko meza San Pedron entzutea, 1 aita ortorengo lagun arteko solasaldietan parte hartzea ere.

• Hileroko feriara hutsik egin gabe joateko ohitunt zuen. Seme-alabak piska bat hasi zirenean esnea ere saltzen zuen herdan. Santi, Pinttras Ipintzakoa, bere semea da.

• Famili girokoa, izakera xamurrekoa eta arotz trebea zen, berak konpontzen zituen baserriko erramintak. San Pedro bailararekin oso identifikatuta sentitzen zen eta bertako jaiak izugarri gustatzen zitzaizkion. Bertsoak, euskal kantak eta herri kirolak ere asko atsegin zituen.

• 1986ko apirilaren 22an hil zen, 82 urterekin.

Juanito Gorostiza.

HERRI-GAİN
ERRETEGIA

San Pedro auzoa, 4
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

454*
C¹¹
4¹

Urrutira deitu gabe
bertakook segituan
konponduko dizugu
igogailua

/ 943 20 35 15
ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
20600 EIBAR



A

ste h onetako erretratua Luis Mari Leiaristik laga digu eta 1928. urtekoa da. Bekoetxe baserriko Jose Iriondo eta Ibartxikiko Maria Elustondo senar-emazteen ezkontzan ateratako argazkia da. Garai hartako ezkontzek ez zeukaten zer ikusirik gaurkoekin. Luis Mari azaldu digunez, "ezteixak ospatzen genitxun lehen, txahal bat hiltzen zan eta 2 edo 3 eguneko jaixa izaten zan txahala jan artian. Ezkonberrixen familiarxalcuek eta inguruko baserrietako lagunak biltzen zian jaira". Ospakizunei tartetxoa egin, eta Bekoetxe basetharen inguruetan atera zuten erretratu polit hau. Argazkian ikus dezakegunez, soinu eta pandero hotsik ere ez zuten falta.

Hona hemen argazkian azaltzen direnen izen abizenak: goitik hasita ezkerretik eskuinera: Manuel Sodupe (soinujolea) (t), Fran-


cisco Iriondo (panderojolea), Andresa Barrutia, Jose Luis Leiaristi (umea), Josefa Sodupe (t), Teodora Iriondo (umea), ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna eta Jose Ramon Totorika.

Bigarren ilaran: Agustin Arrizabalaga "Toletxe" (+), ezezaguna, Jauregi baserriko amona (t), Antonia Juaristi (t), Santi Alonso (t), Ruperto Iruretagoiena (t), Santi 'Sanson' baserrikoa (t), Liberio Txurruka (t) eta Jose Leiaristi (soinujolea) (t).

Eserita: ezezaguna (t), Anton Iriondo (t), Maria Totorika (t), Jose Iriondo (=t), Maria Eustondo (t), Ignacio Elustondo "Ibartxiki" (t), Evaristo Amillategi (t), ezezaguna eta Julian Aldaso, 'Etxetxo' baserrikoa (P).

Lurrean eserita: Victoria Iriondo, Marcelino Elustondo (t), ezezaguna, Martina Iriondo, Agustina Iriondo (umea) (t), Basilio Etxaniz (t), Angelita Iriondo (t), Tomas Iriondo (t) eta Josefa Iriondo (t).

Jabier Agirrebeña



MEDIKUA eta KORRIKALARIA

Korrikazakok jakingo duzuen moduan, Behobia-Donostia lasterketa herrikoia azaroaren 14ean izango da. Lasterketa honek arrakasta itzela du elgoibartarren artean eta lasterkari porrokatu hauei zenbait aholku ematea pentsatu dugu. Horretarako, Jabier Agirrebeña medikuari artikulo bat idazteko eskatu diogu. han ere, osasun gaietan aditua izateaz gain, 4 aldiz hartu du parte Behobian. Bere markarik onena 1h50' izan da.

Behorlhas III

ehenik eta behin esan beharra claukat Behobia-Donostia lasterketa herrikoia bat dela, lasterkariontzat jai egun bat modukoa da eta garrantzitsuena inguratzen gaituzten milaka lagun konpainiaz disfrutatzea da, eta ez markak haustea. Bestalde, horrelako lasterketa baten prestakuntzak hiru zutabe nagusi izan beharko lituzke:

A) ENTRENAMENDUA: Behobia jai bat izan arren, bukatzeko zaila da. Beraz, irail hasieran entrenamenduekin hasia komeni dela uste dut, bestela asko sufritzeko arriskua daukagu. Entrenamenduak hasi aurretik eta ondoren estiramenduak egitea ere garrantzitsua da.

B) NUTRIZIOA: Danetik jan behar da, baina lasterketa eguna hurbildu ahala, karbohidratoak eta fibrak dituzten janari gehiago jatea komeni da; arroza, pasta, zerealeak, fruitu lehorrak, ogia eta legun-break oso garrantzitsuak dira. Karbohidratoek ematen diguten energia motelago kontsumitzen du organismoak.

C) ATSEDENA: Entrenamendua bezain garrantzitsua da, lasterketara gogoz heldu behar da eta ez ahituta.

Prestakuntzaz aparte, janzkera ere zaindu beharrekoa da. Janzkera egokiak ez du korrikaria hobe egiten, baina urra-


latarale /enbait aholku

duretaz eta antzerako lesioetaz babesteko balio du. Urradurarik ez izateko algodoizko kaltzetinak erabili. Oinetako azala gortzeko itsasoko gatza eta binagrea ur berotan bota eta zenbait egunetan oinak beratu. Bestela, bi pare galtzerdi mehe jantzi hanka bakoitzean.

Kolore argiko kamisetak erabili, kolore ilunek eguzki izpi gehiago xurgatzen baitituzte eta berotusuna eman. Gure gorputzak energia gehiago gastatuko du berri ere hozten. Oinetakoei dagokienez, atletismoko zapatilak erabiltzea ezinbestekoa da. Golpeak gutxitzeko orpo lodidunak hobeak dira.

Azkenik, lasterketaren egunean kontutan izateko aholku batzuk emango ditut: gosaltzeko nahikoa denborarekin jailld-tzea komeni da. Ez da esperimuntetarako eguna eta normalean gosaltzen duguna bakarrik jango dugu. Bakoitzak bere ezauganiak ditu eta horien benizateko entrenamendu garaia aprobetxatu. Gure gorputzak hobekien onartzen dituen janariak eta edariak zein diren aurrez jakin behar dugu. Urratu guneak, hau da, titi puntak, oinetako hatzak eta ingele ingurua Vaselinez igurtzi. Hidratazioa ere funtsezkoa da, lasterketa baino lehen, lasterketan eta baita ondoren ere likidoak hartu. Bukatzeko hobe da suabe irtetzea eta enitmoa igoz joatea. Besterik gabe, zortetik hoberena parte hartuko duzuen gutzioi.

Egoitz Mora, 18 urtez azinlo Euskadiko Txapeladuna



Egoitz Mora elgoibartarrak Euskadiko Judo Txapelketan parte hartu zuen joan den larunbatean, hilaren 16an, jubenilen kategorian. Txapelketa Gasteizko Arriaga kiroldegian jokatzen arratsaldeko 16:00etan hasita. Probin-tzietako txapeladunak bertaratu ziren Aniaga, hai mutiletan eta baita nesketan ere. Egoitzek lortu zuen txapela 90 kilotik beherako kategorian. Txapelketa autonomikoetan dagoeneko 5 aldiz igo da podiumaren gorenera. Garaipen honekin Egoitzek Espainiako Sektore Faseko

Txapelketarako sailkatzea lortu du. Proba hau 1999ko urriaren 30ean jokatuko da Errenteriako kiroldegian. Eta han bi lehenengoen artean sailkatzea lortuko balu, Alcalá de Henaresko (Madril) finalerara joango litzateke zuzenean, hain zuzen ere azaroaren 13an eta 14an. Bien bitartean, Estatuko junior taldearekin kontzentrazio batera joateko deialdia jaso du. Kontzentrazio hau Madrilan izango da 1.999ko azaroaren 19, 20 eta 21ean, eta Europako txapelketarako prestatzea izango da helbura.

ESKOLARTEKO KIROLAK

D A Urtarrilak 23 2. 'ardunaldia

AREIO FUTBOLA, Mintxelan

III Benjamin mutilak ■
10:30 Mendaro A- Ikastola B
11:00 Mendaro B- Ikastola D
12:00 Herri Eskola B- Ikastola C
12:30 Herri Eskola A- Ikastola A

■ Benjamin neskek ■
10:00 Ikastola A- Pilar A
11:30 Pilar A- Ikastola B

SASKIBALOA, Ikastolan

• Alebin mutillak ■
9:00 Herri Eskola B- Pilar A
9:45 Mendaro A- Ikastola D
10:30 Herri Eskola A- Ikastola B
11:15 Ikastola A- Pilar B

III Alebin neskek 11
12:00 Pilar A- Ikastola C
12:45 Pilar B- Ikastola B

ESKUBALOA, Kirolifegian

■ Infantil mutilak ■
9:00 Ikastola A - Fleje
9:45 Arno - Pilar A
■ Infantil neskek E
10:30 Pilar B Ikastola G
11:15 Ikastola B- Pilar A
12:00 Kilimon - Ikastola A

Eskubaloiko 1999/2000 denboraldia

Kadeteetako mutilak eta seniorretako neskak

Aste honetan falta zitzaizkigun eskubaloiko taldeak aurkeztuko dizkizuegu. Batetik, IMS senior neskek, eta bestetik, kadeteetako mutilak. Aipatu beharra dago, mutilen kadete mailako bi talde izango ditugu aurten Elgoibarren, Tenomeka Elgoibar eta Gaur Elgoibar, alegia. Ikus ditzagun, bada, hiru taldeok.

Senior neskak



IMS ELGOIBAR
 Atzean, ezkerretik hasita: Leire Dieguez, Ainhoa Torres, Arianne Peñaranda, Ibana Loiola, Vicky Debre, Irma Aldazabal, Ainhoa Aduriz eta Nicoleta Citu entrenatzailea. Makurtuta: Leire Agirrebeña, Pili, Alazne Rementeria, Maitane Ruiz, Amaia Jauregi eta Patricia Rodriguez. Argazkian Olga Garcia falta da,

GAUR ELGOIBAR
 Atzean ezkerretik hasita: Eneko Aduriz, Aitor Arrieta, Andoni Armendia, Asier Ajuriagerra, Ion Menbrillera, Josu Aizpurua eta Jose Peñaranda entrenatzailea. Makurtuta: Ion Irazabal, Ibon Oteiza, Andoni Gonzalez, Ander Mujika, Aingeru Osoro, Aian Alvarez eta Ioritz Conde.

Kadete mutilak



Kadete mutilak



TEKNOMEKA ELGOIBAR
 Atzean ezkerretik hasita: Julen Esnaola, Jon Aranzamendi, Unai Garate, Julen Ansola, Haritz Kruzelegi, Gorka Garate eta Josean Hidalgo entrenatzailea, Makurtuta: Oier Rubio, Daniel Torres, Asier Barrutia, Xabier Uribarri, Haritz Arrieta, Xabier Peñaranda eta Aitor Azkue.

Cilil ZAR	
Futbola	
Hernani 1- Haundi 0 (3. maila)	
Elgoibar 4- Amaika-Bat 0 (1. erreg.)	
Elgoibar 13 -11intrm 0 (Neskak)	
Elgoibar 0- Lagun-Onak 2 (0. Inf.)	
Cruces 5- Elgoibar 2 (Jub. E.L.)	
Almen II - Elgoibar 5 (2. kad.)	
Urola B 1- Pedrusko 1 (1. erreg.)	
Eskualdeko Areto Futbol Txapelketa	
Deabruak 5- Arkupe katetegia 5	
Lurpe 7 - Garrutos 1	
Patri labema 9 - Cleporlivo E 90 4	
Excalibur 2 - Lutec 3	
Euskadi Bac. 3- Ojmar 6	
Irion 10 - Os Xiringas 1	
Pilota	
Loiola/U lazia10 (Lagunak)	
Lizaso/Alkorta 22 (Kad.)	
13medo/Apraiz 21 (Lagunak)	
Alonso/Elyezarreta 22 (Jub.)	
Alzola/Erafia 22	
LeordGerrikabeitia 2 (Lagunak)	
Egimendia/Aliuna 22	
Ansola/Alzibar 11 (Lagunak)	
Areto Futbola	
Zur Ta Lur 0- Gooby Zarautz 3 (1. maila)	
Zur Ta Lur 8- Kupela AAulon.)	
Eskubaloia	
Tenomeka Elg. 25- Gaur Elg. 16 (Kad. mut.)	
IMH Elg. 31 - Leizaran 23 (Sen. mut.)	
Pneumax 27 - IJ rola 15 (Jub. mut.)	
C.B. Ermua 8- Pagoaga Elgoibar 17 (Kad. nes.)	
C.B Ermua 24 - Unceta Elgoibar 24 (Jub. nes.)	
Idarraga Kafeak 3. saria	
HAUNDIko jokalaririk erregularrena 99/00	
JOKALABIA PUNTUAK	
1- Castro,	12
2-Castillo	8
3-Bravo	7
4- Zulaika	7
5- Aranberri	6
6- Polo	5
7-Alberdi	5
8-Txasio	4
9- Baque	3
10- Caro.....	2
11- Fernandez	2
12- Loren	2
13-Alcorta	2
14-Ramos	2
15- Guarrocena	2
16- G. Leonardo.....	1
AGENUA	
Futbola, Mintxetan	
Lanuthata, 23	
17:00 Haundi - Santurtzi (3. maila)	
18:45 Elgoibar - SoraJuce (1. erreg.)	
Igandoa, 24	
12:00 Elgoibar - Eibartarrak B (0. inf.)	
16:30 Elgoibar - Antiguoko (Jub. E.L.)	
Eskubaloia, Kiroldegian	
Lanmbata, 23	
16:30 Linceta Elg. - Oiarso (Jub. nes.)	
17:30 Pagoaga Elg. - Oiarso (Kad. nes.)	
19:00 IMS Elg. - Urdatai (Sen. nes.)	
Igandoa, 24	
12:30 Gaur Elgoibar - Urola (Kad. mut.)	



2ZA

Nork daki arrazoia?

Hilabete honetan, Fugazi taldeak bi kontzertu eskaini ditu: bataartzelona eta bestea Bergara. Kataluniar hiriburuan, ikusteko pasa behar den protokoloa dela eta, aste bukaera honetan niartzelona nengo. Baina sarra aldez aurretik lortzeko ez nuen arazorik izan. Zeleste areto fama-tua ezagutu nuen (eta ez azkenengoa aldiz). Ordu erdi lehenago heldu eta 30 pertsona besterik ez zegoen. Fugazi hasi orduko dena lepo beteta zegoen, ordea.

Pentsatzen dut talde hau ezagutzen ez duen jende asko egongo dela (korneni zaizue ezagutzea), nahiz eta dagoeneko 7 diska eduki. Washington D. C.-ko talde honen kontzertua mundiala izan zen, ahaztezina. Laukotea (orain bostekoa?) izugarria egon zen, ederki koipetutako makina bat bezala.

Alferrik izango da zer nolako taldea den esplikatzen ahalegintzea, beraien soinua eta estiloa guztiz pertsonala delako, rock talde bat dela esatea gutxiesten delako eta pop arrastorik agerian uzten ez duelako.

Iban Urizar



"figoibarke" _ohlakola mangazijOaM onak aurkitzello kailiReris har da"

Kokoe komiki elkarteak bi urtetik behin komiki lehiaketa antolatzen du. Aurtengoa lehiaketaren urtea da, marrazkilari eigoibartarrek antolatzen duten seigarren aldia. Pasa den astean bukatu zen lanak jasotzeko epea eta lehiaketa honen gorabeherak ezagutzeko asmoz, Antxon Alvarez, Kokoeko presidentearekin hitz egin dugu.

-Jaso al dituzue dagoeneko lan guztiak? -Bukatu da jada lanak entregatzeko epea. Orain azken orijinalak jasotzen ari gara eta orain arte 31 lan jaso ditugu. Beraz, 30 edo 40 lanen bueltan ibiliko gara, beharbada iaz baino zerbait gutxiago. Duela 6 edo 7 urte boom bat izan zen, horri esker 80-90 lan inguru jaso genituen. Aurten, hortaz, gutxiagok hartu du parte baina jendeak segitzen du lanak bidaltzen.

-Lehiaketa gai bati buruzko jardunaldiekin tartekatzen duzue, ez? -Urte batean, gai bati buruzko erakusketa egiten dugu eta hutrengoan lehiaketa. Aurten lehiaketa egitea tokatzen da. Egiten duguna zera da: orijinalak jaso, jende aurrean erakutsi eta ondoren, kalitatezkoak direnak saritu.

-Ezaguna al da Elgoibarko lehiaketa? -Nahiko ezaguna da, batez ere komikiaren munduan. Alde batetik, erakusketarengatik ezagutzen gaituzte eta gero, lehiaketa ere ezaguna da komiki aldizkarietan etab. iragartzen dugulako. Aurreko deialdietan izena daukaten komikilariak etoni izan dira, Santiago Sequeros, Fernando de Felipe... Horiek gonbidatu bezala etorri ziren, erakusketa zegoela eta. Guretat pozgarria izan da hemen parte hartu duten batzuk, ondoren marrazkilari ezagunak egin direla jakitea. Adibidez, hemen saia loitu dute Tallok, Roberto Garaik... Neuri batean, Elgoibarko lehiaketa harrobi modukoa izan da marrazkilari onak aurkitzeko.

-Pozik al zaudete daukan harrerarekin? - Egun dauden lehiaketak ikusita, hemengo lehiaketak diru sari nahiko ona dauka, eta beti da eskaparate bat mundu honetan purgildu nahi dutenentzat. Pozik gaude daukan harrerarekin. Parte hartzaile kopurua nahiko egonkorra da eta eskertzekoa da egiten duten esfortzua lanak aurkezteko.

-Nolakoa da komikiaren egoera? - Komikia beti dago krisi antzean baina krisi hori egonkorra da. Egile, editoreekin hitzegiten duzunean denek krisia aipatzen dute eta ko-

Antxon Alvarez



KOKOeko PRESIDENTEA

mikiaren ohiko egoera krisizkoa da. Ez dirudi aurrerantzean hobetuko denik, gaurko gazteek beste dibertimentu batzuk daukate aukeran, bideojokuak, zinea... Komikia literaturaz bezalako artea da, hasieran arreta eskaini behar diozuna ondoren atsegina izan dadin zuretat. Irakurtzeak esfortzua eskatzen du, aldiz, beste entretenimentu moeta batzuk azkanagoak dira: zinea, bideokonsolak... Gaztetxoek arreta banatuago daukate eta gogorra izango da. Beharbada komikiaren etorkizuna beste medio batzuekin bat egiteari lotuta dago. Egun oso ohikoa da, komikiko pertsonaiak zinean ikustea, edo zineko pertsonaiak komikira aldatzea. Edo CD ROM formatua: komikia istorioak kontatzeko artea da, orain arte paperean argitaratu dena baina edizio elektronikoak dakarrena zera da: CD ROMean bidaiatzea, Internet bidez...

-Manga komiki japoniarrek oihartzun handia eduki dute, ez? Sekulako danbatekoa izan da. Bazirudien momentuko zerbait izango zela baina eutsi egin dio. Beharbada erakutsi du baita ere, argialetxeen ezintasuna jendeak irakurri nahi duena igartzeko.

-Zuk zeuk gustuko al dituzu Manga komikiak? - Beste jenero batzuk gustuago ditut. Mangaren barnean egile oso trebeak daude, eta jeneroari ekarpen positiboak egin dizkio, narrazioaren azkartasunari dagokionez adibidez, eta ondoren beste medio batzuek bere egin dituztenak, zineak berak esaterako. Danean bezala, Manga onak eta txarrak daude, eta egile aparteko askoren ostean imitatzailak datoz, eta beharbada hori da arazoa. Nik neuk baina nahiago ditut beste gai batzuk, pertsonen arteko harremani buruzkoak direnak etab.



MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LAU IKASLEK, LANGILEEN PRESTAKUNTZA PREMIAK AZTERTZEN DIHARDUTE

tangileak behar bezala prestatuta al daude?

Itziar Loiola eta Begoña San Martin elgoibartarrak, Jaione De La Puerta bilbotarra eta Eider Ugalde bergararra Humanitateak eta enpresa ikasketen 3. kurtsoa burutzen ari dira Arrasateko Unibertsitatean. Talde lana eta praktika

asko bldaltzen dizkiete eskolan eta lan hauetako bat besapean zutela BARRE-Neko atea jo zuten duela gutxt. Eskuar-tean zeukaten proiektua interesgarria iruditu zitzaigun eta beraiek gu aztertu aurretik elkarrizketa bat egin diegu.

Itziar Loiola



-Nahiko karrera berria ari zarete ikasten, ezta?

Bai, Arrasateko Unibertsitateko Humanitateak eta enpresa karrerako lehenengo promoziokoak gara, nahiz eta Deuston urte bat lehenago si ziren.

-Azaldu hitz gutxitan zuen ikasketen ezaugarriak.

Humanitate arloko ikasgaiak; psikologia, literatura eta enpresaritzako irak

kasg 4rentabilitatea, ekonomia nahasten ditugu. Enpresak gestionatu edo kudeatzen irakasten humanitate aldetik jasotzen dugun hezikea rekn edozem arlotan mobitzeko gaitasuna izan beharko genukiVarlo humanoa asko zaintzen dugu.

-Lan asko eginlehar dute, ezta?

Bai, hala da, taldejanak garrantzi handia du. Ik bakoitzeko lan baladaltzen digute.

-Zein da BAWera ekarri ia-n prmetua?

Lan hau aurrera ateratzeko, lehenik, enpresa ba aukeratu behar genuen. Ondoren, bertako langileek ditzaketen prestakuntza premiak identifikatu, hau da, lana aurrera ateratzeko dituzten zailtasunak, teknologi aurrerapenak sortzen dituen prestakuntza beharrak etab. BARREnaytaldea gaztea delako eta taldeko bi elgoibartarrakgarelako aukeratu dugu BARREN auzizka-

ria. Gainera, gure lana ez da premiak identifikatzearekin bakarrik bukatzen. Ondoren, hotiEkraINteko egokiena iruditzen zai-

Eider Ugalde



enprestkjangi

Jaione De la Puerta

INTERESEKO TELEFONOA

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943414622
 Gurutze Gorria **9430864**
 Mendaroko Ospitalea.. 943032800
 Odol Emaileak 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740B98

UDALA

Euskara Zerbitzua.. 943-744366
 Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
 943 742158
 Mendaroko Udala.. 943 756100
 Ongizate zerbitzua ... 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa.. 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ... 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza.. 43 740296
 Zaharren Biltokia ... 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) .. 943 74 08 80
 Herri Eskola .. 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutu
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
 Kastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea.... 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo **943 74 10 82**
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki irratia 943 74 34 74

2^a asteleena
2^a larunata

22:15 ZINEA
 "La novena puerta"

12:00 ZAZPIKIREN
 BATZARRA
 Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
 "La novena puerta"

27^a asteazkena

8:00 JUBILATUEN
 TXANGOIA
 Autobusak
 Irteera Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Jubilatuen etxea

19:30 HBren BATZARRA
 Gaia:
 Ildo politikoa eta
 Espainiako hauteskunde
 orokorrak
 Kimetz Elkartean

29^a ostirala

22:15 ZINEA
 "El secreto de Tomas
 Crown"

22^a ostirala

19:00 KOMIKI
 ERAKUSKETAREN
 INAUGURAZIOA
 Kultur Etxean
 Hilaren 31ra arte
 Antolatzailea: Kokoe
 Komiki Elkarte

20:00 JO TA SUA
 REALZALE
 TALDEAREN
 BATZARRA
 Kultur Etxean

22:15 ZINEA
 "La novena puerta"

22:30 KONTZERTUA
 Debekatuak taldea
 Gaztetxean

24^a igandea


10:00 AEK EGUNA
 SARAN
 Autobusak
 Irteera Sigmako zubitik
 Antolatzailea:
 AEK euskaltegia

19:00 ZINEA
 "Tierra y Libertad"
 Gaztetxean

16:30 ZINEA
 "Rugrats"

19:00-22:15 ZINEA
 "La novena puerta"

11^a NEA



Zuzendaria: Roman Polanski.
 Antzezleak: Johnny Depp, Frank
 Langella, Emmanuele Seigner.

La novena puerta

Arturo Petrez Reverte idazlearen "El Club Durnas" liburuan oinarrituta dago pelikula hau. Dean Corso, pelikulako protagonistak, bildumagile milioilarienezako liburu zaharrak bilatuz lan egiten du. Liburuzale porrokatu batek Dea-druaz mintzo den liburu bilduma bat bilatzeko enkargua emango dio. Baina buru misteriotsu hauek ezusteko asko ezkutatzen dituzte eta Corsok gorriak ikusikuo ditu bere bilaketa ahaleginean.

• Kentzertua eta zinea gaztetxean asteburuan

Ekitaldiz beteriko asteburua antolatu du Elgoibarko gazte-wak, Lehenik, ostiralean, hilaren 22an, Debekatuak taldeak kontzertua eskainiko du gaueko 22:30ean. Hondarribi aldeko talde honek hard core estiloko musika jotzen du, eta aurki bere lehen diskoa aterako du Esan Ozenki diske-txearekin. Larunbat gauean, hilaren 23an, berriz, El Desvan del Macho musika taldeko baxujoleak bere proiektu berriaren aurkezpena egingo du. Azkenik igandean zine emanaldia izango da gaztetxean bertan. *Tierra y libertad* Ken Loach zinegilearen pelikula izango da ikusgai. kola hau 1936. urteko Espainiako gerra zibilean kokatuta dago eta milizia errepublikarrean parte hartu zuten soldadu ingelesen gorabeherak kontatzen dizkigu.



• HBren batzarra Kimetz Elkartean

HB alderdiak, egun bizi dugun ildo politikoa eta Espainiako hau teskunde orokorretan alderdiak hartu beharreko jarrera eztabaidatuko ditu datorren asteazkenean, hilaren 27an. Gai hauek Kimetz Elkartean egingo duten batzarrean aztertuko dituzte. Batzarra arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

FARMAZIAK

Egunez Gaez
23 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)
24 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)
25 Escala Escala
26 Bidasolo Bidasolo
27 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

28 Anduaga Anduaga
29 Yudego Yudego
ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Herriko

enparanla 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 943 75 13 81

OKINDEGIA

24 igandea Ibarrenea

Lana

• ESKAINTZA •

- Neska behar da taltiarnan lan egiteko asteen zehar. Irr 943 74 04 90
- Emakume euskalduna behar da emakume edadetua zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 72 943 74 24 23 (14:(X)letatik 21:(O)etara). Maria Jesus.
- Mutila behar da astegun arrusalde-etan eta astebuntetan tahernan zerbitzari lanak egiteko. wr 943 74 28 97
- Astehuruetan sukaldean laguntzeko neska hat behar da, zr 943 74 37 71
- I 8 unetik gorako neska behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ostiraletan eta larunhatean. 73 943 19 15 05 (Ostiraletan eta larunhatean deitu)

• ESKAERA •

- Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. tr 943 74 29 73 (goizez, Andone).
- Umeak zaintzeko ernakumea eskaintzen da. Egun osorako edo arraisaldearako. is • 943 74 42 50 Jose).
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. tr 607 49 73 23

Salerosketak

- Bizirik dauden ahatte ederrak saltzen dira. tir 943 74 31 02.
- Nintendo 64 kont.sola saltzen da. 2 mando eta 5 jokurekin. Egoera onean. tr 943 74 46 46 (13:00etatik 14:00(etan, Jostt)).
- Karahana eta Puch motoa saltzen ditut. 943 74 41 41 (arratsaldetan).
- Seat Ihiza (SS-AC) saltzen da. Motor ona. Itxiera zentralizatu eta kristal jasogailu elektrikoa. tr 617 92 72 96 (12:(X)-21.00).
- Landetan (Frantzia)jarrita dagoen karahana salgai. zr 943 74 31 02 (Maribi)

Partikularrak

- Matematika, Fisika eta Kimikako klase partikularrak ernaten ditut. Baita LOGSEko 1. eta 2. mailak, eta Hezkuntza profesionala ere. Talde murrituak, 4 edo 5 ikaslekoak. Esperientziaduna (Injineru industrial). Te 943 74 13 11 (Javier).
- EGA eta First Cenilleate atultalun Injimentzako ikasleak LH. DBH eta LOGSEko ikasleei klase partikularrik emango lizkieke. zr 943 74 39 69 (Celia)

Bestelakoak

- Larunbatean hilak 9, urrezko kate hat galdu nuen. "Y" hat dauka. Mesedez, oso garrantzitsua da. Norbaitek aurkitzen hadu, deitu 943 75 62 45 telefonora.(Yoli).
- Perla urdina daukan urrezko eraztuna aurkitu nuen eta panokiko sakristian tuzi dut. Bertan pultsera bat eta erloju hat ere hadautle.
- Larnizko kartera hat galdu nuen Herriko Antzokian hilaren 12an; harruan Euskal Mendi Federakuntzako gil tzeikin. zr 943 74 04 15 (eguerdian deitu, Heetor)

*Merkatuan denda benitua trtspa+atzenda.>z943 74 25 17

- Irailirren 26an, Aubixatik San Pedrorako bidean ume tnten jertsea aurkitu nuen, Udaletxera eraman dul.
- Gaztetxerako sofak edo hutakak behar dira. Butaka tx.lofa zaharrak hadituzu hotatzeko, jarri Gaztetxekoekin kontaktuan. Eurak arduratuko dira jasotzeaz. zr 943 74 35 72
- 1970ean jaiotako eta Ikastolan ibili zirenen afaria hilaren 23an egingo da. 20:(X)etan Malape tabeman edo 21:30etan Txarridunan. Afaira joan nahi duenak Txarridunan eman dezala izena.
- Neska talde hatek dantza kontonporanem edo jazz estiloko dantzak erakutsiko lizkioken pertsona bat behar du. a 943 74 18 06

Garajeak


- Marradun garajea saltzen da pista heltAmn. ir 943 74 00 89 (Astegunetan eta 21:00etatik aurrera deitu).

Etxebizinak

- Etxebizitza behar dut Elgoiharren lehen hait lehen. zr 943 70 11 93 (21:(1)etatik aurrera deitu)
- Pisua saltzen dut Santa Ana kalwn, guztiz benitum zr 943 74 05 14 zr 626 23 75 70 (17:00etatik aurrera).
- ◆ Pisua alokatzen da Dehan ekaineararte. rr 943 74 13 39 (Ane)
- Benidormen apartamentua alokatzen dut. Levanteko hondanzan. Parking-a, igerilekua, garbigailua eta telebista ditu. zr 943 74 3827/943 74 20 31
- Bi pertsona hizi diren etxebizitza batean, bi logela alokatzen dira. Interesik haduzu deitu Tr 617 57 30 47ra (21:00(etan aurrera).
- Elgoiharko erdigunean pisua partekatze pertsona bat behar da. zr 607 72 55 70 (18:(X)etatik aurrera).

Agurrak

- Zorionak Maite Elizbururi hilaren 21 ean urteak hete zituelako. Ikastolako DBH 3. mailakoan partez.
- Zorionak Itsaso Garitagoitimi irailaren 19an [2 urte hete zituelaito. Zure lagun on baten partez. Nagore Lueches.
- Zorionak Nagore Luecheseri intilak Sean 12 urte bete zituelako. Mila zorion eta tnusu handi hat Itsasoren partez. Ondo pasa zme egunean eta segi orain hezain ondo institutuan. Zure lagun maitalunaren partez.
- Zure amak pastel denda hate.an egin heharko zuen lan, zu bez.elako bonboi bat ez bait du edozeinek egingen. Zorionak Mirari Arrizabalagari. Nor ote gara?
- Barkatu!!! Nahiz eta herandu izan, zorionak eta urte askotarako Andrea Zubiaurreri. hilaren 13an 12 urte bete zituelako. Semitzen dugu lebenago ipini ez izana haina... Ia handitzen ari zara eh? 12 tirakada zure lagun partez.
- Zorionak Monika Andonegiri hilaren 20an 27 urte bete zituelako. Ondo ondo pasa astehtikaera. Besarkada haundi hat Armaxaren partez.
- Zorionak Ion, gurasoen eta Idarra familia osoaren partez. Eta bereziki Ramses, Ainhoa eta Mirenen partez




- Zorionak Eulogio Etxeberriari eta M Luz Sanzi, hilaren 26an, beraien urrezko ezteiak beteko dituztelako. Beren seme alaba eta ilohen partez.




- Zorionak Eli Santos urriaren 21ean 16 urte hete zituelako. Gurasoen eta nehaeren partez.
- + Zorionak Reyes Sanchez gaur, hilak 22, urteak bete zituelako. Belarritik tirakada handi bat bere senarraren, Ion eta Eiderren partez.

- Zorionak Kristinari gaur, ostirala. 4 urte bete zituelako. Muxu haundi hat gurasoen, armamaren eta osataren partez.



- Zorionak Eka lni igandean, hilaren 24an, 11 urte beteko zituelako. Guraso eta anai-arreha Asier eta Andrearen partez.




- Zorionak Amayari, hilaren 20an 2 urte bete zituelako. Familia osoaren eta hereziki aitsitzen partez.



- Zorionak eta muxu haundi hat Irene Mujikari. urriaren 27an, bere lehen urtebetetzea ospatuko duelako, Familia guztia, eta bereziki, Iffiakiren partez.
- 7.orionak Abdel Youcef Merinori, hilaren 24an bere lehen urtebetetzea izango delako. Familia osoaren partez, bereziki aitsiola-amamen eta osaha izehen partez.



- Zorionak Ion Agoteri, urriaren 17an, 8 urte bete zituelako. ren partez eta berezild lehengusina Sheila eta Alaitzen partez.



- Zorionak Itsasori igandean, hilak 24, 10 urte heteko zituelako. Familia eta bereziki Haritzen partez. Baita ere Alaitzen partez.

EUSKARA IDATZIA hobetzeko

I I-< A S T fa. IFI C1) ."

NORENTZAT:

IEnpresa, elkarte eta erakundeetako idazkari eta bulegarietzat.
Interesa duen edonorentzat.

HELBURUA:

Euskaraz errazago eta hobeto idazten ikastea.

NOIZ:


Azaroko asteazken eta ostegun arratsaldeetan (18:00etatik 20:00etara).

IRAUPENA:

16 ordu (teoria eta praktika).



ELGOISARKO IZAAPA
Kultur Elkorteo



GUREAN 1341
GUREAN BAI
Euskororen 44delko 1-Elzarmeria



EIGOISARKO UDALA

EDUKIAK:

Gutunak, bilera-deiak, ziurtagiriak,
gonbidapenak,...
Akatsen zuzenketa, itzulpen-arazoak,...
Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak.

ANTOLATZAILEA:

GUREAN BAI

Euskararen Aldeko Hitzarmena.

IKASTARO-EMAILEA:

DEBABE Udal Euskaltegia.

Interesik baduzu, deitu telefono honetara
urriaren 28a baino lehen:

943 74 17 46 (Abel)

SEKULAKO PREZIO BEREZIAK

**A
Z
K
E
N

A
S
T
E
A**

SUDADERAK

2.000 pta.
1.000 pta.

ZAPATILAK

2.500 pta.
4.000 pta.

TXANDALAK

5.000 pta.



kirolak

TXANDAL PRAKAK

2.000 pta.

TXAMARRAK

5.000 pta.

KAMISETAK

1.500 pta.

2000ko Gida Komertz

Gida

Komertziala 2000

Zurekin pentsatuta
gida praktikoa,
hurbila,
eta konpletoa
prestatzen hasi gara.

GOIBAR eta MENDAKO

00

BARREN
ASTEKARIA

1999ko Gidan agertu ez bazinen
edo daturen bat oker bazegoen

deitu **943 74 37 04** telefonora